



carta de los
derechos sociales **euskal herriko**
eskubide sozialen *Karta*



carta de los
derechos sociales **euskal herriko**
eskubide sozialen *Karta*

Jendarteko kide gehienok behin eta berriz salatu izan dugu gobernuak gure bizitzan eragiten diguten gaiak buruz zer nolako erabakiak hartzen dituzten. Baina gainera, ziur gaude bestela joka daitekeela, eta jokatu behar dela. Horregatik, gaurko egoera errotik aldatzeko mugitzen hasi gara. Benetako jendarte aldaketarako beharrezkoa da ekoizpen bai kontsumo ereduak aldatzea.

“Hizkuntza ez da neutrala; euskarak gure herriaren mundu-ikuskerara islatzen du, sozialki eraikitzeko modua da hizkuntza; gure pentsaera eratzeko modua eta errealitatea ulertzeko tresna baita komunikazio-tresna garrantzitsua ere. Latinezko 'Directus' hitzak bi punturen arteko lerrorik laburrena adierazten du; bitartean dagoen guztia zeharkatzen du, zanpatuagatik ere. 'Eskubidea'ren esanahian, berriz, eskuek inguratu egiten dute, erdian dagoena bere baitan hartu, bildu, besarkatzen dutelarik. Avellaneda/Urrestietako Forua (ia mila urteko historiarekin) haratago joan zen: “Zor zaio”. Gure herriak ez du bizi duinerako eskubidea; aitzitik, bizimodu duin hori zor zaio. “Herriari duintasuna zor zaio”. Nekane Jurado

Egoera makur honen aurrean krisitik irteteko hartzen diren neurriak kapitalismoaren logikatik hartzen badira, aldizko partxe bat besterik ez direla izango uste osoa dugu. Egin dugun lehen urratsa “Euskal Herriko Mugimendu Sozial eta Sindikalen lehen Asanblada” osatzea izan da, “Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna” egiteko helburuarekin.

Gutun honek sintesia egin nahi du langile-klasearen eta sektore herritar zabalaren (andra- gizon, gazte, adineko, migrante, bazterturiko taldeak, maila funtzional desberdineko pertsonak...) helburu eta aldarrikapenik sentituenekin, gure eskubideen defentsa eta hedapenean aurrera egite aldera, aurre eginez esplotazio baldintzak areagotzeko indarrean dagoen eraso kapitalistari.

“Lehen urratsa engainuaren eta distortsioaren lainoan sartzea da eta munduari buruzko egia ikastea, gero antolatu eta borrokan jarduteko. Hori sekula ez da ezinezko izan, ezta erraza ere. Orain ez da ezinezkoa, ezta erraza ere. Historian gutxitan izan da hau bezalako unerik, non hautuak giza-ondorio zeharo dramatikoak eragin baititzake jendearengan”.
Noam Chomsky

Gutuna egiteko modu bakarra parte hartezko prozesu bat izan daiteke. Kanta herrikoi ezagunak dioen moduan, “hire indarraren beharra dinagu, gure indarrarekin batera”. Parte hartzeak bultzatu eta hauspotu egin behar du arlo sozial eta sindikaleko erakunde desberdinok egiten ari garen ahaleginak koordinatu eta bateratzeko prozesua; azken xedea litzateke eredu sozioekonomiko berri baten oinarriak ezartzea. Guztioi bermatzeko Euskal Herriko baliabideetan eta sortzen den aberastasunean parte izateko bidezko aukera. Eredu berri hau oinarritu beharko da Lurra errespetatzen duen hazkunde ekonomiko eta sozial propioan, lan guztien, hau da produktiboa zein erreproduktiboaren banaketa justuan eta sortutako aberastasunean

(zaintzaren eta pertsonaren bizitza kalitatearen logika lehenetsiz ondasun eta hazkunde ekonomikoaren logikari).

Nola ekarri gaituzte hondamendi honetara?

“Gure garaiko arazoa da honez gero etorkizuna ez dela izan ohi zena”.

Paul Valéri

Krisi sistemiko eta global bat bizi dugu, zeinak aldi berean esparru anitzetan eragina duen: politika, ekonomia, ekoizpen modua, arlo soziala, ekologia, zaintza, bizikidetzeta eta balioak. Galeanok esan zuenez, “mundua unibertsoan jiraka dabilen paradoxa bat dugu. Horrela jarraitzekotan, laster planetaren jabeek gosea eta egarria debekatuko dituzte, ogia eta ura falta ez daitezen”.

Gaur egun bankuetan eta finantza-sisteman kontzentratuta dagoen botere ekonomikoak hartzen ditu politika publikoei buruzko erabakiak. Berarekin askatasun eta eskubideak desagertzen dira -alegia, benetako sistema demokratiko baten oinarria-, baita herrien burujabetza ere, eta hein berean finantza munduko lobby-en eta enpresa handien boterea areagotzen da. Ekonomia, gobernu neoliberaleari esker, bankari eta espekulatuzaileen minoria- ren interesen mesedetan dago; honek areagotu egiten du aberastasunaren banaketa injustua, diskriminazioen iraupena, pobreziaren feminizazio eta infantilizazioa, hizkuntzen eta kulturen desagertzea, naturaren suntsipena eta ondasun komunen desagertzea. Laburbilduz: Demokrazian bizi garen enganupean, elite ekonomikoak eta hauen zerbitzuan dauden politikoek, gehiago sozialari imposituriko benetako diktadurapean bizi gara.

Giza-eskubideei, eskubide politiko, kultural, zibil, ekonomiko eta sozialei buruzko nazioarteko adierazpen eta gutunak baliorik gabe geratzen ari dira, gobernuak bultzatutako erreforma eta murrizketen bidezko eraso latzaren eraginez, gure eskubideak merkantzia bihurtu nahi dituztelarik.

- Eskubide sozialak (osasuna, etxebizitza, hezkuntza...), herri-administrazioei exiji dakizkiekeen eskubide gisa, ordenamendu juridikotik kentzen ari dira. Lehentasuna bankuen negozioa salbatzea da eta zor finantzieroa ordaintzea; aldiz, bigarren mailara pasatako beharrian sozialak aurrekontuek ahalbidetzen duen heinean asetzen dira.
- Zerbitzu publikoek beren jite unibertsoala galtzen dute. Privatizatu egiten dituzte, gutxi batzuk negozioa egiteko aukera izan dezaten. Zerbitzuen berrordainketa ezartzen da kontu publiko murriztuak orekatzeko, herritarren beharrianen lepotik.
- Enplegurako eta prestazio sozial duinak izateko eskubidea, pertsonen bizi-baldintza egokiak bermatzeko, baztertu egiten da akziodunen dibidendoak puztearren. Soldata jaitsierak, lan-baldintzak okertzea, langabezia masiboa, prekarietatea eta bazterketa erabiltzen dira lan- kostuak zeharo jaisteko; ustez gure herrian erabat desagertuta zeuden ia esklabutasun harremanak berpizten ari dira.

- Etxeko eta zaintza lanaren izaera baztertzaille eta diskriminatzailea areagotzen ari da jendarte matxista eta heteropatriarkal honetan; lan horri balioa kendu, ikusezin bihurtzen du eta esparru pribatura makurrarazten du, pertsonen ongizatearen kaltetan. Gainera, andreek pairatzen duen zapalkuntza larriagotzen ari da: eskubide sexual eta erreproduktiboen ukapena, soldata desberdintasunaren eta prekarietate laboralaren hazkundera, bortizkeria matxistaren eta bere ukazioaren hedapena...
- Hizkuntza-eskubideak: Krisiaren aitzakiatan, mendetako euskararen kontrako hizkuntza-politika ezartzen jarraitzeko aukera baliatzen da berriz ere, garai honetako formetara egokituz: ezin da arautu, murrizketak egin behar dira...

Euskal Herriko gobernu neoliberalak, estrategia honen lankide

“Sistema neoliberalaren kudeatzaileek eta ‘itxura zientifikoa’ ematen dioten intelektualek duela lau hamarkada heriotza zigorra ezarri zieten ideologiei, eta XX. mendea amaitzeaz zelarik historiaren amaiera ebatzi zuten. (...) Helburua engainatzea eta nahastea da, hain zuzen historia geldiarazteko asmoz, historia jendartea eraldatzeko, mundua aldatzeko herriek daramaten borroka den aldetik bederen. Funtsean, trikimailu teoriko horiek krisian dagoen eta gainbehera doan sistema politiko-ekonomiko baten jarrera defentsiboa islatzen dute”. Ricardo Alarcón

Euskal Herriko gobernu neoliberalak beren esparruan politika horietxek ezarri dituzte, eta estatu espainiar zein frantsesaren eta Europar Batasun guztiaren estrategia berean parte hartzen dute, urte askotako borroka anitzetan erdietsitako lorpen sozialak deuseztatzeko xedez. Kontuan eduki gainera gaur egungo ongizate estatua nola lortu den beste herritar batzuen gaizkizatearen kostak, eta batipat beste herri askoren ustiatze eta lapurretekin. Gobernu hauek ezin dute euren ardura saihestu esanez beste batzuk hartutako erabakiak direla. Eurak dira erabaki dituzten edota honez gero ezarri diren politiken arduradun. Baina artean, Rosa Luxemburgek esan zuen legez, “klase burgesen justizia berriro sare baten modukoa izan zen, zeinak marrazo aseezinei ihes egiten utzi eta sardina txikiak harrapatu baitzituen”.

Botere politiko eta instituzionalak erabaki du eskubideak murriztea dela euskal jendarteari bere etorkizuna erabakitzeko gaitasuna kentzeko modua. Zerga- eta aurrekontu-politika guztiz injustuek ekarri duten krisiaren areagotzea baliatzen ari dira euskal langileen eta jendarte osoaren aurka inoiz ikusi gabeko erasoak jotzeko.

Euskal Herriko gehiengo sozialak ezin du jarraitu gure erabakitzeko eskubidea baldintzatzen eta mugatzen duten politikak jasaten; dekretuz-dekretu taxututako politika hauek honako ondorioak dituzte: desberdintasuna, langabezia, pobretzea, pribatizazioak, gazteentzako etorkizunik eza, genero diskriminazioa, euskaraz bizitzeko galaraztea, ingurumenaren heriotza, arrazismoa eta zerbitzu publikoen suntsipena; hori guztia, ahaztuz herriak ez direla legeentzat sortu, legeak herrientzat baizik.

Mugimendu sozio-sindikala aitzindari

“Denborak ihes egiten du, uharrak bidaia egiten du, ibaiko urak bere bidetik jarraitzen du. Nere herria, bere jatorriaz geroztik, ibai handi bat bezalakoa izan zen, zerupean lurreko emankortasunaren altxorrak sortzen dituena”. Agosti Xaho

Larrialdi sozial eta nazionalako egoeran gaude. Horregatik, Eskubide Sozialen Gutun bat hitzartzeko ardura hartu dugu geure gain, oinarrizko eskubide ekonomiko sozialak bermatu eta, horrenbestez, euskal jendarteko kide guztiek bizi-baldintza duinak izatera iritsi eta beren erabakiak har ditzaten.

Kapitalaren oldarraledi neoliberalak medio iritsi da Euskal Herriko emakume eta gizonezkook, eskubide eta betebeharrak berdinak ditugula, beste proiektu ekonomiko eta sozial bat eraikitzeko garaia. Irtsi da erabateko askatasunez hautatzen dugun sistema geure buruari emateko garaia, gure baliabide natural, ekonomiko, sozial zein kulturalen gaineko kontrola bermatzeko eta gure beharrezkoak baita egokien diren erabaki politikoak hartzeko.

Jendarte eta bizitzaren zaintza eredu berri bat behar dugu: jarduera ekonomikoaren erdigunean pertsonak kokatu behar dira, eta lehentasuna eman behar zaio jendartearen interes kolektiboari, ez interes partikularrei eta merkatuaren logikari. Hots, finean egungo metatze kapitalista beste produkzio, banaketa, kontsumo eta zaintza eredu bat bihurtu behar dugu, gure beharrezkoak asetzeko, betiere aintzat hartuta ezin duela ondoko belaunaldien, ez da beste herrien edota planetaren erregenerazio ahalmenaren kaltetan izan. Beharrezko balitz, Rosa Parksen jarrera hartzeko garaia genuke; emakume hark ezetz esan eta historia aldatu zuen: arbuia injustu edo onartu ezineko irizten diegun lege edota arau horiek.

Gaurko egoerari aurre egiteko prest gaude, eta erakundeei exijitzen diegu jar daitezela Euskal Herriaren borondatearen, bertan bizi direnen esanetara, bere etorkizun politiko, instituzional, ekonomiko eta bizikidetzaren eredu eraikitzeko.

Irtsi da garaia euskal jendarte bidezkoa, anitza, inklusiboa euskalduna eta solidario bat eraikitzeko, bere borondatean oinarrituta, beste inposizio-rik eta kanpoko eskuhartzerik gabe. Ibiltzeko eta bidea egiteko garaia dugu. Horregatik proposatzen dugu Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutun hau, ondorengo ataleko printzipioen arabera.

Parte hartze sozial aktiboa

“Asanblada Nazionala antzerki burges bihurtzen denean, eskenatoki guztiak asanblada nazional bilakatu behar dira”. 68ko maiatza.

Karta hau prozesu parte hartzaile baten emaitza da, pertsonen konpromezuan oinarritu dena. Mugimendu sozialek zein antolakunde sindikalek sustatu dute, eta finean, prozesuan zehar parte hartu duen pertsona orok egiten du. Hemen jasotakoak herriaren eskariak dira, kapitalaren aginduari aurre egin nahian.

Mobilizazio soziala ardatz duen prozesu iraunkorra

*“Kalera, kalera, borrokalari kalera!...”
Euskal kantu herrikoia*

Parte hartze sozialaren bidez, Karta elaboratu ez ezik, sentsibilizatorako pautak zehaztu eta gure eskaerak tinkatzeko unean jarraitu beharreko bideak ere marraztuko ditugu. Soilik mobilizazio sozialak eta indarren batuketak ahalbidetuko digute inposatutako eraso iraunkorrak geldiarazi eta marraztutako bidean aurrera egiten.

Justizia, elkartasuna eta unibertsaltasuna. Eskubide sozialen, ekonomikoen, berdintasunezkoen, linguistikoen, kulturalen eta demokrazia parte hartzailearen aitortza

“Batek goserikan diraeino ez gara gu asetuko, beste bat loturik deino ez gara libre izango”. Joxe Antonio Artze

“Euskal Herria ukatzen duenak gu ukatzen gaitu. Gu gara euskara, gu euskaraz gara”. Jon Maia

Gure justiziarako eta elkartasunerako eskaera ez da erretorika kontua. Karta honetan jasotako eskubide ororen aitortza exijitzen dugu. Karta honetako edukien ezarpenak Euskal Herrian bizi garen herritarron bizi baldintzen hobekuntza nabarmena suposatuko du.

Eskuartean dugun Kartan aitortzen diren eskubide sozialak unibertsaltasunaren printzipiotik abiatzen dira eta, ondorioz, hauen ezarpen inklusibotik ere, inolako bereizketarik nahiz diskriminaziorik egin gabe, dela genero arrazoiengatik, edota arrazoi laboral, aniztasun sexual, aniztasun funtzional, osasun, azal kolore, jatorri, egoera administratibo, ideologia politiko, hizkuntz arrazoi zein sinismen erlijiosoengatik ere.

Karta hau zehazki emakume eta gizonen arteko berdintasun eskubideen aldarritik abiatzen da.

Jatorri anitzak, herri bera: Euskal Herriko biztanleriaren jatorria anitzekoa da eta gure erronka guztion artean herri hau aniztasunetik eraikitzea da, dena delakoa izanda ere jatorria eta helburu honekin batera eraldaketa sozia-

la bultzatzea da, jendarte justuagoa bat eraikitzea, pertsona orori aukera berdintasuna eskainiz eta desberdina izatearen eskubidea errespetatuz.

Aniztasuna elementu baikortzat jo behar da eta batzeko elementu bihurtzeko lan egin behar da. Elkar ezagutzatik elkar onartzera joango gara eta hortik elkarrekin bizitzera, Euskal Herria denon artean eraikiz.

Naturaren mugak errespetatu: Bestelako produkzio eta kontsumo eredu bat

“Kontsumoak kontsumitzen gaitu”

Mugatua den ekosistema batean bizi gara, zeinak ez dituen materialak infinituki erreproduzitzen ez eta hondakinak infinituki xurgatzen ere. Energia eta lehengai berriztagarri nahiz ez-berriztagarrien neurrigabeko kontsumoak, bereziki aberasturiko herrialdeetan, baliabideen agortzean eta aldaketa klimatikoan aktiboki kolaboratzen du etorkizun ez oso urrunean tragikoak izan daitezkeen ondorioak eraginez. Bestelako produkzio eta kontsumo eredu bat ezinbestekoa da, bizitza osasuntsua izateko eskubideari lotuta.

Bizitza erdigunean: Iraunkortasun orekatua lehenetsi

“Egungo Krisiak agerian uzten du bizigarriak diren bizitzak sortzeko sistema honek duen ezintasuna” “Bizitzeko poztasuna duen bizitza ez da nik edo zuk ulertzen duguna baizik demokratikoki kolektiboak erabakitzen duena eta honetarako arduratzen gaituena”. Amaia Orozco

Defendatzen dugun eredu sozio-ekonomikoak bizitzaren mantentzea lehenesten du: pertsonen zaintza zein gure lurraren zaintza. Balio hauek ez errespetatzeak etorkizunik ez izatera garamatza, ez pertsona bezala ez eta herri bezala ere. Ezinbestekoa da bizitzaren oreka eratzen eta mantentzen duten sozialki beharrezkoak diren lan guzti horiek aitortzea.

Bermatu behar diegu ondorengo belaunaldiei biziraupenerako beharrezko diren oinarrizko baliabideak, eredu sozio-produktibo baten bitartez zeinek gure natur baliabideak kontserbatzen/iraunarazten lagunduko duena, ez-xahutzailea, kontsumo arduratsuan oinarriturikoa, birziklapenean, berrerabilpenean eta aztarna ekologikoaren gutxitzean.

Aldi berean, bakean bizitzeko eskubidea ere badugu hortaz militarismoak ez du kabidarik.

Pertsonak merkatuaren ginetik. Ekonomia jendartearen zerbitzura

“Hainbat gorputz hilarazi dituen diruak, hamaika arima hiltzen ditu egunero”. Giovanni Papini

Ekinbide politiko, ekonomiko eta instituzionalaren lehenetsunak aldatu behar dira, pertsonak eta euren interesak merkatuaren alboan lehenetsiz, eta lanerako eskubidea (produktiboa eta erreproduktiboa) kapitalaren interesen alboan. Edozein aktibitate ekonomikoren azken xedea ezin da aberaste partikularra izan pobretze orokorraren kontura. Horretarako, ziurtatu behar da gobernuaren ekinbidearen lehenetsuna direla politika ekonomikoaren efizientzia soziala eta oinarrizko eskubide sozialen bermea.

Aberastasunaren bidezko banaketa

“Zertan erabil dezakete askatasun politikoa ogirik ez duten horiek? Orduan, soilik teorizatzaileentzat eta handi-mandiak diren politikarientzat da baliagarria”. Jean-Paul Marat

Demokrazian bizitzea xede duen edozein jendartek, bere lanaren bidez produzitzen duen aberastasunaren banaketa justuaren demokratizazioa bermatu behar du, baita produzio sistemena ere. Kapitalaren kontzentrazioa eta metaketa, izugarria dena eta gero eta poltsiko gutxiagotan haziz doana, geroz eta sektore gehiago pobretzeko baliatzen ari den krisi ekonomikoaren kausa eta ondorioa da.

Euskal Herriko pobreziaren muga determinatuko duen akordio soziala bultzatu behar dugu mobilizazioaren bidez, zeinaren mugaren azpian ez duen diru-sarrerarik izango inork, honetarako beharrezkoak diren tresnak sortuaz.

Ezinbestekoa da politika fiskalean sakoneko aldaketa ematea mobilizazioaren bidez; sistema fiskal justoa izateko bere bilketa gaitasuna nabarmen hobetuz, beharrezkoak diren premia sozialen koberturari aurre egiteko.

Lanen bidezko banaketa. Enplegu duina

“Industrializazioak II. Mundu Gerraren ostean deuseztatu zuen morroi-klase bat berpizten da”. André Gorz

“Androk] esklaboek gara. Gizonak baino era ankerragoan esplotatzen gaituzte”. Lucy González

Karta hau sozialki beharrezkoak diren lan guztien bisualizatzeko beharretik ere abiatzen da (bai ordainpeko enplegua, bai zaintza eta etxeko lanak, etab.), lanok duten balioa eta aitortza emanaz eta hauek era justu batean banatuz. Bizitza duin baterako dugun eskubidea soldatapeko lan harremanetatik kanpo egon behar du.

Enplegu duinaren defentsan dihardugu, herritarren gehiengoari ezarri nahi dioten prekarietatea ukatuz.

Kolektiboa denari balioa eman

“Profezia guztiek diote izakiak berak bere buruaren suntsiketa eragingo duela. Baina mendeek eta etengabe berritzen den biziak, maitaleen eta ameslarien belaunaldi bat sortu zuten ere. Munduaren suntsiketarekin amesten ez duten gizon eta emakumeak dira, tximeleten eta urretxindorren mundua sortzea amesten dutenak baizik”. Gioconda Belli

Eskubide Sozialen Karta, sistemari aurre egin eta berri bateranzko erai-kuntza bidean, erronka kolektiboan oinarritzen da. Indibidualismoa hedatzea helburu duen ideologiak ondo asko daki gure indarra gure arteko batasunean datzala eta indar hori batuketa horretan biderkatu egiten dela, kolektiboa delarik sistemari aurre egiteko bide bakarra.

Publikoa denaren defentsa eta bere hobekuntzaren alde egiten dugu pribatua denaren aurrean eta ondare komunak(airea, ura, basoak...) aldarrikatzen ditugu beraien funtzio soziala eta elkartasunezko erabilera.

Horrez gain, taldeen zein pertsonen arteko sareak sustatzearen beharra aldarrikatzen dugu elkar ezagutu eta ezartzen ari zaizkigun politiken aurrean erantzun irmo bat emate aldera.

Pertsonen eta herrien arteko elkartasuna

“Karitatea umiliagarria da bertikalki eta goitik egiten delako; elkartasuna horizontala eta elkarrekiko errespetua dakar berarekin”.

Eduardo Galeano

“Hemengo irrintzi askeak han oihartzun”. Esaera zaharra

Aztarna ekologikoa da elkartasun ezaren neurtzaile argiena. Euskal Herriak bere aztarna txikitu beharra du bestelako produkzio eta kontsumo eredu arduratsu batean oinarrituta, baita iraunkortasunean zein burujabetzan oinarrituriko nekazal eta elikadura politikak aurrera eramanez.

Eskubide hauek gure esparru nazionalean bermatzen abiatzen dira. Euskal Herriak herrien arteko elkartasunaren garapenean aktiboki lagundu behar du, baita nazioarteko lankidetzan, eta finean, justizian, parekidetasunean, askatasunean eta elkartasunean oinarrituriko harreman eredu berriak sortzen ere. Hemen proposatzen den alternatiba finkatze globalerako oinarritzakoa da aktibitate internazionalista.

Euskal Herria da euskal herritarren eskubideak bermatzeko subjektu burujabea

Euskal Herriari, beste edozein herri bezala, bere eredu ekonomiko, sozial, politiko eta instituzional propioaren gainean erabakitze eskubidea dagokio, muga bakarra izanik euskal herritarrek (ulertuta bizi proiektua bertan garatzen duten pertsonen multzoa, zeinahi izanik ere beraien jatorria) demokratikoki adierazitako borondatea bera. Instituziook izan behar duzue parte hartze sozial aktiboarekin, Euskal Herriari bizi eta lan egiten duen pertsona ororentzat karta honetan jasotzen diren oinarritzako eskubide sozialen bermatzaileak.

Euskal Herriak bere historiaren jabe izanik, berau ezagutu eta transmititzeko eskubidea du.

Euskal Herriko instituzioek honen arabera jardun behar dute

“Herriak agindu, gobernuak bete”.

Marcos komandante ordea, EZLN

“Bakea ez da soilik gerrarik ez egotea. Pobrezia, arrazakeria, diskriminazioa eta bazterkeria dauden heinean, nekez esan dezakegu mundua bakean denik”. Rigoberta Menchú

Instituzioei exijitzen diegu euren gain har dezaten herritarrenganako duten ardura, baita beharrezko den neurri oro hartzea oinarrizko eskubide sozioekonomiko, kulturak eta politikoren jabe izan daitezen bermatzeko ere.

Euskal Herriak demokrazia parte hartzailean oinarrituriko eredu politiko baten beharra du, herritarrak antolatzen eta erabaki politikoetan aktiboki parte hartzen bultzatuko dituen.

Instituzioek helburu hauek euren jardun politikoaren erdigunean jarri behar dute, eragotziz euskal gehiengoengandik at hartzen diren erabakiak inposatu ditzaten dekretu, lege erreforma edo beste era bateko aktuzioen bidez. Egun, euren ere badagokie oihukatzea botere ekonomikoari "Ez dira pasako" eta horren arabera jardun behar dute.

EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Sarrera

Azken urte honetan gauzatutako prozesu horizontal eta parte-hartzaileak izaera berezia ematen dio karta honi Euskal Herrian, hau da, bestelako zer-bait bihurtzen du karta hau. Karta honen edukien oinarria¹ da galdera batzuei erantzuteko eskaria, aurretik erantzunik eman gabe, eta horrek ikaskuntza kolektiboa ekarri du berekin. Bada, ikaskuntza kolektibo horrek, zailtasun eta kontraesanak izan arren, ezagutzaren alde egiten du eta –agian hau da garrantzitsuena– desberdinen arteko aitortzaren alde ere bai, zubi, proposamen eta hizkuntza konpartituak eraiki nahi baititu.

Bidea praktikatik egin da. “Kolektiboa egiteko” bestelako forma batzuk probatu ditugu, elkarren arteko harremanetarako forma berriak Euskal Herrian (eta Euskal Herriarentzat). Egindako ibilbideak adierazten du, bere emaitzak baino gehiago, esperientzia honen izaera politiko berritzailea. Testuak etapa bat formalizatu eta ixten badu ere, lan kolektiboak aurrera jarraitzen du. Jarrai dezala Karta honek eta berak defendatzen dituen esku-bideek sortutako ilusioarekin, hau da, eskubide horiek biderkatu eta bereganatu daitezkeela Euskal Herriko auzo, herri eta hiri bakoitzean.

Eskubide eta Berme Sozialen Karta hau Euskal Herrian bizi direnen oinarritzko eskubideez osatuta dago, hau da, euskal herritarren oinarritzko eskubideez; hala, herritar horiek dira Karta honetan jasotako eskubideen titularrak eta hartzaileak, baldintza berdinetan, eta haiei dagokie eskubideak erabiltzeko beharrezkoak diren tresnak eskuratzea.

Pertsona guztiak dira eskubide berberen jabe eta guztiek merezi dute berdintasunezko tratua. Horrek exijitzen du era guztietako diskriminazioak ezabatzea, hots, arrazoi hauengatik sortutako diskriminazioak ezabatzea: adina, egokituriko sexua, egoera soziala, jatorri geografikoa, generoa, aniztasun funtzionala, sexu-identitatea, aukera ideologikoa, bizikidetzaren harremana, egoera administratiboa, etnia edo askatasun gabetua izatea (espetxeratuta egotea).

Administrazio publikoek balioen aldaketa sustatuko dute, aniztasunaren errealitateari dagokionez, bizitzaren eremu guztietan; halaber, desberdintasunerako eskubidea ere sustatuko dute, askatasun indibidualaren defentsatik, betiere horren erabilerak beste pertsona batzuen eskubideak zapaltzen ez baditu.

Karta honen zilegitasun eta legezkotasunaren azkeneko oinarria euskal jendarteak askatasunez adierazitako borondatea da; beraz, borondate hori izango da bertan jasotako eskubideak euskal konstituzio- eta arau-esparrura eramateko betekizun bakarra.

Euskal Herrian bizi diren pertsonak badute eskubidea eurek erabakitzen duten sistema sozio-ekonomikoa eratzeko. Oraingo sistemak agerian utzi ditu pertsonen eta ingurumenaren behar ugari modu egokian erantzuteko

dituen mugak; horregatik, beharrezkoa da oraingo krisi sistemikoa gaindi dezakeen bestelako sistema bat lehenbailehen eraikitzea.

Eskubide hauek modu errealean erabili ahal izateko, ezinbestekoa da gizonen eta emakumeen beren sexu-kondizioetatik ezarritako rola errotik aldatzea, oraingo sistema patriarkala ezabatzeaz batera; izan ere, sistema horrek emakumeen aurkako esplotazio eta indarkeria mota ezberdinak sortzen ditu eta emakumeen diskriminazioa finkatu du enpleguaren eremuan, lan erreproduktiboan eta zaintzaren eremuan, eta horren bidez eragotzi die bizi-baldintza duinak eta mendetasunik gabekoak lortzea berdintasun egoeran.

Lurraldearen antolamendua eta herri zein hirien hirigintza karta honetan jasotako beharren arabera diseinatuko dira.

Pertsona guztiek dute zaintzeko, ez zaintzeko eta zainduak izateko eskubidea, erantzukizuna eta ez derrigortasuna beren bizitza osoan, baita heriotza duina izateko eskubidea ere, inolako estigmatizaziorik jasan gabe.

Euskal instituzio publikoei dagokie eskubide horien erabilera bermatzea, pertsonen zerbitzura jarritako administrazio garden baten bidez eta partaidetza sozialetik gidatutako sektore publiko komunitario baten bidez.

Euskal Herriko instituzioek baldintza juridiko, fiskal eta administratibo egoiak ezarriko dituzte pertsona guztiek bizi-baldintza duinak berdintasunez eskuratu ahal izan ditzaten, eta, halaber, oinarritzko eskubide sozialen eta ondasun komunaren merkantilizazioa eragozteko, zerbitzu publikoen titulatasun komunitarioa bermatzeko eta pertsonen partaidetza ziurtatzeko alor politiko eta sozialean.

Instituzio horiek Karta honetan jasotzen diren gai guztien inguruan ahalmen legegilea izango dute.

Parte-hartzea aske, autonomo eta berdinzalea lortzeko xedez, Administrazioek parte-hartze sozialerako estrategia bat programatuko dute gai publikoetarako. Estrategia horrek barne hartuko du bere eskumenekoak diren gai publikoei buruzko egitura eta prozedura iraunkorrak eta unekoak eratzea eta bideratzea. Hartu beharreko neurrien artean, parte-hartze sozialari buruzko prestakuntza espezifiko sartuko da. Parte-hartze mailak kontsulta lotesletik elkarren arteko erabakira bitartekoak izango dira.

Administrazio publikoarekin batera sare sozio-komunitario arduratsu, sortzaile, autonomo eta aldarrikatzailea garatzea ezinbestekoa izango da, ardatza eta lehentasuna eskubide sozialen eraikuntza izango delarik.

Zerbitzu publikoek guztien ongizatea defendatzeko betebeharra dute. Haien helburua da euskal herritarren eskubide sozialen erabilera bermatzea, baliabide propioez, berdintasunez, irisgarritasunez, modu deszentralizatuan eta eraginkortasunez.

Zerbitzu horiek kontrol politiko eta sozialaren mende egongo dira aldi berean. Haien egitura profesional eta independentea izango da, haien zere-

ginak betetzean, eta haien arduradunak merezimendu eta gaitasun irizpideen arabera izendatuko dira.

Sektore sozial eta ekonomiko estrategikoak atenditzeko zerbitzu publiko propioak garatuko dira, hots, sektore hauek atenditzeko: osasuna, hezkuntza, zerbitzu sozialak, etxebizitza, energia, finantzak, komunikazioak eta garraioa.

Jarduera ekonomikoa pertsonen zerbitzura

Botere publikoek bermatuko dute interes komunitarioa interes pribatuen gainetik jartzen dela euskal eredu sozio-produktiboarekin, ingurumen-iraunkortasunarekin, kohesio sozialarekin eta lurraldearen plangintzarekin zerikusia duten gai guztietan.

Justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarrenganako laguntzan oinarritutako ekoizpen, banaketa eta kontsumo harreman guztiak lehenetsiko dira.

Euskal sektore publikoak bere nagusitasuna bermatuko du plangintza ekonomiko orokorrean; halaber, ekimen pribatuaren subsidiarotasuna eta euskal sare sozial eta produktiboaren garapena bermatuko ditu.

Horretarako, beharrezkoak diren tresna arautzaile eta instituzionalak sortuko ditu, alor hauei dagokienez: plangintza ekonomikoa, lurraldearen antolamendua, garapen-eredu endogeno eta iraunkorra, berrikuntza, zuzeneko esku-hartze publikoa ekonomiaren sektore estrategikoetan, hala nola, baliabide naturalen erabilera, energiaren ekoizpen eta merkaturatzea, finantza-sistema eta gure elikadura-burujabetzaren bultzada.

Euskal Herriko aurrekontu- eta zerga-politikaren oinarriak printzipio hauek izango dira: ekitatea, progresibotasuna eta aberastasunaren bidezko banaketa. Helburu nagusia izango da Karta honetan jasotako eskubideak bermatzea eta sozialki justifikatuta ez dauden gastuak saihestea (gastu militarrik, errepresiorako fondoak,...). Horretarako, atzera egin behar da azken hamarkadotan errenta altuentzat eta kapitalaren errententzat onartu diren zerga-beherapenetan; horrekin batera, lanekoak ez diren errenta guztiak ikuskatu behar dira, gehienez bost urterik behin.

Mugimendu sozial eta sindikalen benetako parte-hartzerako mekanismoak sortuko dira, aurrekontu publikoen urteko eztabaidetarako.

Natura, eskubideen jabe

Bere forma guztietan, naturak badu existitzeko, irauteko eta bere bizikloak mantentzeko eta birsortzeko eskubidea. Pertsonok, aldiz, berau mantentzeko erantzukizuna eta betebeharra dugu.

Euskal Herrian bizi garenok badugu ingurumen osasuntsu eta naturalaz gozatzeko eskubidea, eta, hortaz, pertsonen, naturaren eta bizitza forma desberdinen arteko elkarreragin onuragarria babesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko.

Jarduera ekonomiko publiko edo pribatu guztiek komunitatearen interesetik kudeatuko dituzte airea, ura, lurzorua, kostaldeak, klima eta bizi-forma guztiak, baliabide horiek gure belaunaldiaren eta etorkizuneko belaunaldien mesederako erabiliz eta planifikatuz; horretarako, baliabideen xahuketa eta gehiegizko ustiapena ezabatuko dira, eta baita garapen neurrigabea ere, horren ordez kontsumo arduratsua, berrerabilera, birziklapena eta ordeko energia berriztagarriak bultzatuz.

Eskualde mailan, gobernu eta instituzioek lurralde-garapena diseinatuko dute, ikuspegi deszentralizatzailez eta jardueren askotarikotasuna sustatuz alor hauetan: nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza, industria, turismoa, energia eta zerbitzuak.

Ingurune naturalaren jabetza komunala sustatuko da eta nekazaritza-lur publikoa eskuratuko da jarduera produktiboentzat eta lehenengo sektorea bultzatzeko. Administrazio publikoek Euskal Herriko nekazaritza-elikagaien ekoizpena eta elikadura-burujabetza bultzatuko duten politikak bideratuko dituzte. Nekazaritza-elikagaien hurbileko industrializazio eta merkaturatzea sustatuko dira.

Hiri-garapena pertsonen neurrira egokituta egingo da, behar bakoitzari modu integratuan erantzunez, adin, sexu/genero eta aniztasun funtzionalaren arabera.

Euskal jendartearen behar energetikoei erantzutea sektore estrategikotzat jotzen da, eta hortaz, soilik instituzio publikoek planifikatu eta kontrolatu behar dute. Gobernu eta instituzioek neurri egokiak programatuko dituzte bertoko energia-iturriak guztiz berriztagarriak izan daitezen. Energia-enpresa publiko bat eratuko da, ekoizpen-baliabide propioez, bere bidez oinarriko behar energetikoak bete egiten direla bermatzeko.

Administrazio publikoek kontsumo energetikoa ahalik eta gehien murrizteko kultura sustatzeko politikak garatuko dituzte, bai alor publikoan eta bai alor pribatuan. Etxebizitza buruaskitasun energetikoa bultzatuko da; horretarako, energia-galerak murrizten dituzten eraikuntza-teknikak aplikatuko dira, energia berriztagarrien aprobetxamendua ahalbidetzen duten teknologiak ezartzeaz batera.

Etxebizitza guztiek eskubidea izango dute gutxieneko energetiko bat dohainik eskuratzeko, etxebizitza oinarriko bizigarritasun beharrak betetzeko adinakoa.

Herritarrek eskubidea izango dute kalitatezko garraiobide publikoak izateko, Euskal Herriko hiri barruko eta hiri arteko ongi-etorri hurbilen beharrei egokituta. Garraiobide horiek bereziki hartuko dituzte kontuan mugikortasun fisikoko arazoak dituzten pertsonen beharrak.

Agintaritza publikoek Euskal Herriko berezko beharrak ase ditzakeen oinarriko nekazaritza-elikaduraren ekoizpena bideratzeko politikak sortuko dituzte. Nekazaritza-elikagaien hurbileko industrializazio eta merkaturatzea sustatuko da.

Kalterik gabekoak direla zientifikoki frogatuta ez dagoen bitartean, debeatuta egongo da elikagai transgenikoen merkaturatzea, bai pertsonen kontsumorako eta bai animalien kontsumorako.

Elkartasun kolektiboa bizitzaren iraunkortasunerako

Bizitzaren iraunkortasuna eta pertsonen ongizatea izango dira Euskal Herriko sistema sozio-produktiboaren erdiguneak. Merkatuak, kapitalak eta espekulazioak ez dute jadanik bizitza bideratuko.

Zentzu honetan, zaintza oinarrizko eskubide soziala eta jendartearen onura izango da. Pertsona guztiek dute ekarpena egiteko eskubidea zein betebeharra, guztien ongizatearen aldeko subjektu aktibo gisa.

Pertsona guztiek dute bizitzaren zaintza ziurtatzen duten betekizun guztiak bermatuta izateko eskubidea. Eskubidea dute, halaber, interdependentzia pertsonala berezko balioztat aitortua izateko eskubidea; halaber, nahitaezkoa da zaintza-lanak sexuen artean bidezketasunez birbanatzen laguntzea.

Soldataz ordaindutako etxeko lanek eta zaintza-lanek maila duina izango dute eta gainerako enpleguen eskubide berdinak izango dituzte.

Familiako zaintza-lana eta etxeko lana aitortzeko prestazio-formulak sortuko dira.

Era berean, pertsona guztiek dute aisialdirako eskubidea. Zentzu honetan, atsedean espliziturako eskubidea, denbora librekoa gozatzeko eskubidea eta aldizkako opor ordainduak izateko eskubidea bermatuko zaie.

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza

Emakumeok, emakume izate hutsagatik, indarkeriarik ez jasatzeko eskubidea dugu. Sistema heteropatriarkalaren oinarria indarkeria sexista da. Horri aurre egitea, emakumeek egunerokoan jasaten dituzten indarkeria anitzak (sexuala, fisikoa, politikoa, erreproduktiboa, psikologikoa, ekonomikoa, lan eremukoa, sinbolikoa...) atzematea, ikusaraztea, eraistea eta zigortzea da. Honekin guztiarekin amaitzeko, ezinbestekoa da erantzukizun indibiduala eta kolektiboa.

Egungo sistema hetero-patriarkala indarkeria sexistan oinarritzen da, beraz gaitz honi aurre egitea guztion ardura da, norbanako zein kolektibo moduan.

Euskal instituzioek beharrezkoak diren hezkuntza-politika, plan eta hezkuntza-programak eratuko dituzte, bai patriarkatuaren adierazpen horren askotariko formak aztertzeko eta haien sustraiak ezabatzeko, indarkeria sexista pairatzen duten emakumeei arreta emateko eta era berean emakumeon jabetasuna eta erabakitze eskubidea bermatzeko.

Babes sozialerako eskubide unibertsala

Pertsona guztiek dute babes sozialerako eskubidea, hori oinarrizko premisa baita Euskal Herriko bizitza sozial eta ekonomikoan aktiboki parte

hartzeko eskubideen subjektu autonomoa izateko. Enplegu eta baliabide ekonomikorik eza, zaintzen arreta, gaixotasuna eta autonomia pertsonalaren gabezia –bizitzan zehar- ezin dira inola ere oztopo izan bizitza duin eta aktiborako.

Botere publikoei dagokie, Euskal Herriko Babes Sozialerako Sistemaren bitartez, eskubide horren erabilera ahalbidetzea, diru-sarrerak bermatzearen bidez eta kalitatezko zerbitzu sozial eta zaintzen sare publiko eta unibertsal baten bidez. Aurrekontu publikoez finantzatuko dira, eta haien iraupena lehenetasunezkoa izango da.

Euskal instituzio publikoek neurri egokiko baliabide ekonomikoak bermatuko dituzte, oinarrizko beharrak eta autonomia pertsonaleko beharrak pobrezia mailaren gainetik bete ahal izateko. Pobrezia mailak Euskal Herrian sortzen den aberastasuna hartuko du kontuan, irizpide gisa.

Kalitatezko enplegu duina

Pertsona guztiek eskubidea izango dute ekoizpenaren eta zerbitzuen prestazioaren eremuko jardueretan askatasunez parte hartzeko, duina, gizartearentzat onuragarria eta egonkorra den lan baten bitartez, bizi-baldintza duin eta autonomoak eskuratzea ahalbidetzen duen bidezko ordainsari batez.

Gaur egun zailtasun handienak dituzten kolektiboen laneratzea bultzatu da; aniztasun funtzionaleko kasuetan, lan-baldintzak gaitasun pertsonalera egokitu beharko dira.

Balio bereko lanak soldata berdinez ordainduko dira. Ez da ordainsari-diskriminazio edo -arbitrarioritasunik onartuko sexu, etnia, ideologia, sexu-identitate, aniztasun funtzional edo jarduera ekonomikoagatik.

Euskal Herriko baldintza sozio-ekonomikoekin bat datorren gutxieneko soldata bermatuko da eta gure herrian sortzen den aberastasunarekin lotuko da. Egin beharreko eztabaida sozialaren ostean, gehieneko diru-sarrera pertsonalen maila ezarriko da, bai jarduera pribatuetan eta bai publikoetan.

Asteko, urteko eta bizitzako lanaldia murriztuko da, soldata murriztu gabe, lana banatzeko eta aberastasuna sortzeko eta banatzeko estrategia gisa, eta baita laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko estrategia gisa ere, erantzunkidetasuna sustatuz eta genero-rol bereiztuak gaindituz.

Arauek ez dute baimenduko justifikaziorik gabeko kaleratze liberrik. Langabezia-sari mugagabea bermatuko da egoera horrek dirauen bitartean. Doako enplegu-zerbitzu publikoak egongo dira, behar den neurrikoak, orientabidea, prestakuntza eta lanbide-birziklapena eskaintzeko.

Langile guztiek sindikazio libererako eskubidea izango dute, eta baita beren lan-baldintzen negoziazio kolektiborako eskubidea ere; halaber, greba egiteko eskubidea ere izango dute, beren interesak defendatzeko. Grebarako, negoziazio kolektiborako eta ekintza sindikalerako eskubideak funtsezko lan-eskubide unibertsalak izango dira eta euskal administrazioek

burujabetzatik arautuko dituzte gai horiek, beti ere iraganean onartutako irizpideen barruan.

Euskal instituzioek erabateko ahalmen arautzailea izango dute lanaren alorrean, horri buruzko legedia osatzeko; hala, lanerako eskubidearen muina ezarriko dute, eta baita Lan Harremanen Euskal Esparruaren oinarritzko arauak ere. Euskal eremuaren baitan, alderdien arteko akordioa eta negoziazioa izango dira arau-esparru hori eratzeko tresnak.

Langile guztiek badute eskubidea beren zereginak laneko arriskurik gabe garatzeko. Euskal administrazioak behar beste baliabide eskuratu ditu eskubide hori osasun sistema publikotik garatzeko.

Euskal Herriko lan-administrazioak Lan Ikuskaritza propioa eratuko du.

Balioa sortzeko tresna den aldetik, enpresak bermatuko du erabakiak modu demokratikoan hartzen direla; orohar, onura kolektiboa onura partikularren gainetik jarriko dela bermatuko dute, langileak prozesuetan inplikatu direla, lan-baldintzak kolektiboki negoziatuko direla eta sortutako enplegua eta aberastasuna ekitatez banatuko direla.

Osasunerako eskubidea

Pertsona guztiek dute osasunerako eskubidea, honela islatzen dena: modu autonomo, solidario eta atsegingarrian bizitzea, ingurumen osasuntsuaz gozatzea, elikadura iraunkorra izatea eta ingurune osasuntsu eta seguruak izatea lanean, komunitatean eta bizikidetzan-ingurunean.

Euskal instituzio publikoek bermatuko dute osasun-arreta integrala eskuratzeko eskubidea, euskal osasun sistema publiko, unibertsal eta erabilera-aren unean- doako baten bitartez; sistema hori aurrekontu publikoz finantzatuko da.

Sustapena, prebentzioa, sendatzea eta errehabilitazioa Euskal Herriko osasun sistemaren funtsezko atalak izango dira; horri begira, autonomia pertsonalaren bultzada lehenetsiko da, une orotan, osasun-gaixotasun prozesuan; halaber, duintasunez bizitzeko eta hiltzeko borondate pertsonala errespetatuko da beti.

Gisa berean, botere publikoek kontuan hartu beharko dituzte politika publiko eta jarduera pribatu guztiek osasunean dituzten ondorioak; horri begira, bereziki aurre egingo diete oraingo desberdintasun sozialak osasunaren alorrean sortzen dituzten politika eta jardueri.

Hezkuntzarako eskubidea

Pertsona guztiek dute hezkuntza publiko, euskaldun, plural, laiko eta doakoa eskuratzeko eskubidea, aniztasuna integratuko duena eta berdinzalea izango dena generoaren ikuspuntutik (hezkidetzan), ikuspegi kritikoa eta elkartasun internazionalista sustatuko dituena, hezkuntzaren etapa guztietan, bai derrigorrezkoetan eta bai derrigorrezkoak ez direnetan.

Hezkuntza sistema propioa izango da eta euskal curriculum deritzana garatuko du. Zeharkako eran, hezkuntza emozionala ere hartuko du barne eta pertsonen jarduera kritiko eta sortzaileak bultzatuko ditu.

Euskararen ezagutza eta erabilera bermatu behar zaizkie ikasle guztiei. Euskalduntzerako eskubidea bizitza osoko eskubide bat da.

Etxebizitzarako eskubidea

Pertsona guztiek dute eskubidea oinarrizko zerbitzuak dituen etxebizitza egoki, seguru, eroso eta higienikoa eskuratzeko eta berataz gozatzeko.

Etxebizitza oinarrizko beharrizan bat da, merkatuaren eta espekulazioaren logikatik kanpo geratzen dena. Alokairu soziala, zaharberrikuntza eta hutsik dauden etxebizitzaren okupazioa, jabetzaren eta lurzoru urbanizagarriaren funtzio soziala lehentasunezko ekintzak izango dira etxebizitza eskuratzeko bidea ziurtatzeko.

Pertsona guztiek dute beren beharrei egokitutako etxebizitza duina erabiltzeko eskubidea, aniztasun funtzionalari lotutakoak barne sartuta.

Administrazio publikoek etxebizitzarako eskubidearen erabilera bermatuko dute, alokairu sozialera zuzendutako etxebizitza parke publiko bat eskainiz, bizikidetzaren sarreren %15a gainditu gabe.

Kultura

Administrazio publikoek Euskal Herriko adierazpen kultural propioak bultzatu eta babestuko dituzte, lehentasunez euskaraz garatzen direnak edo berarekin zerikusia dutenak.

Administrazio publikoetatik, sorkuntzarako askatasuna eta esparru kulturalen autogestioa bultzatuko dira eta ekonomikoki sostengatuko, jai-adierazpenak barne.

Pertsonak badute eskubidea auzo eta herrien beharretara egokitutako ekipamendu soziokulturalak izateko, ekipamendu horiek erabiltzen dituzten kolektibo eta pertsonak kudeatuta.

Euskal Herriko adierazpen kulturalen askotarikotasuna instituzioetatik babestu eta sostengatu beharreko ondasun publikotzat hartzen da. Errealitate hauek aintzat hartuz, elkarbizitza eta elkarren aitortzan oinarrituriko ereduaren alde egingo da, kulturalki anitza, laikoa eta solidarioa den Euskal Herrian dauden aniztasun berri zein askotarikoak kontuan hartuz.

Hizkuntza-eskubideak

Euskara bertoko eta berezko hizkuntza izanik, euskarak egun bizi duen egoera gutxitua eta herritarrok pairatzen ditugun hizkuntza eskubideen urraketak errotik aldatu behar dira. Euskara bizitza indibidual zein kolektiboaren esparru guztietan normalizatu behar da. Eredu sozial berriak euskararen normalizazioa ahalbideratu behar du, bide horretan urratsak ematen jarraitzeko baldintza berriak sortuz. Zentzu horretan, euskaldun eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskalduna berreraikitzekeo prozesu kolektiboa abiatzeko esku-

bidea aldarrikatzen dugu. Euskarak biziraungo badu nahiz garatuko bada, euskararen normalizazioa esparru guztietan bermatzea ezinbestekoa izango da (lan munduan, komunikabideetan, hezkuntza formal zein informalean, zerbitzu publikoetan, prestazio sozialetan...), norberak euskaraz bizitzeko duen eskubidea ere gauzatu dadin. Zentzu berean, hizkuntza eskubideen aitortza, bermea eta erreparazioa ezinbestekoak dira.

Horretarako, euskarak Euskal Herri osoan ofiziala, ezagutu beharrekoa, lehentasunezkoa eta berezkoa izan behar du. Ezagutzaren unibertsalizazioa eta erabilera sustatzea ardatz harturik, Hizkuntza Politika berri zein eragin-garria halabeharrezkoa du euskarak.

Euskal Herrian bizi diren gainerako hizkuntza taldeekin batera, errespetuan zein begirunean oinarrituriko elkarbizitza eraiki behar dugu euskal herritar guztion artean, jatorri zein kultura aniztasuna kontuan harturik.

(1) **Ohar metodologikoak.** Dokumentu honek jasotzen ditu, modu laburbilduan, Hego Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta lantzeko prozesu parte-hartzailerak ekarritako eskubide eta aldarrikapenak. Bere asmoa da eskari nagusiak laburbiltzea, nolabaiteko homogeneotasun estilistikoarekin; azaldu nahi du, halaber, zer-nolako jendarte aldaketa aldarrikatzen duten prozesu honetan parte hartu duten eragile sozial eta sindikalek.

Testu hau parte-hartzaileek plazaratutako eskubide, aldarrikapen eta tresna guztiak biltzen dituen beste testu batekin/batzuekin osatzen da.

Badira arazoak eskubide sozialak eta eskubide indibidualak edo horiek lortzeko aldarrikapen eta tresnak zer diren definitzeko eta bereizteko. Ekarpene guztiak ahalik eta gehien errespetatu nahirik, horien arteko bereizketarik ez egitea erabaki dugu. Izan ere, uste dugu zailtasun hori ere prozesu kolektibo propio eta parte-hartzaile baten bidez gainditu behar dela. Hala eta guztiz ere, Eskubide Sozialen Karta honek gabezia horiek gainditzeko beharra gizarteratzea eta motibatzea lortzen badu, funtsezko garaipena izango da hori gizarte eskubideak lortzearen aldeko borroka ideologikoa-erentzat.

Testu honetan, oraingo egoera hobetzen duten eta jendarte bidezkoago, iraunkorrago eta berdinzaleago bat lortzera zuzentzen diren eduki zehatzak sartu dira.

Zeharkako alderdiak edo alderdi errepikakorrak ahalik eta gehien saihestu dira, horiek sarreran edo atal globaletan sartu baitira.

